

6/2021 AKTA
NAFARROAKO UDAL ETA KONTZEJUEN FEDERAZIOAREN BATZORDE BETEARAZLEAK IRAILAREN
14AN EGINDAKO BILERA

BERTARATUAK:

LEHENDAKARIA:

Juan Carlos Castillo Ezpeleta jn., Azkoiengo alkatea

1. LEHENDAKARIORDEA:

Mario Fabo Calero jn., Martzillako alkatea

BATZORDEKIDEAK:

Aitor Larraza Carrera jn., Irurtzungo alkatea
M^a Carmen Segura Moreno and., Alesbesko alkatea
Jesús María Arrizubieta Astiz jn., Tafallako alkatea
Raúl Maiza González jn., Berriozarko alkatea
Óscar Bea Trincado jn., Cintruenigoko alkatea
David Alvarez Yanguas jn., Castejongo alkatea.
Enrique Maya Miranda jn., Iruñeko alkatea.
Alejandro Toquero Gil jn., Tuterako alkatea.
Pedro José Soto Eguren jn., Gesalazko alkatea.
Manuel Romero Pardo jn., Aranguren Ibarreko alkatea
Cristina Recalde Vallejo and., Artikako Kontzejuko burua
Sabina García Olmeda and., Izarbeibarko
Mankomunitateko lehendakaria
Fernando Ferrer Molina jn., Erriberako Mankomunitateko
lehendakaria
Esther Lacasta Pérez-Illzarbe and., Basaburuako alkatea
Mikel Zabaleta Aramendía jn., Leitzako alkatea
Ángel Martín Unzue Ayanz jn., Agoizko Alkatea
Yolanda González García and., Vianako alkatea.
David Oroz Alonso jn., Urdaingo alkatea

Ezin etorria adierazi dute:

Ander Oroz Casimiro jn., Antsoaingo alkatea
Oihan Mendo Goñi jn., Garesko alkatea
Mikel Landabere Villanueva jn., Aurizberriko Kontzejuko
burua

IDAZKARIA:

Berta Enrique Cornago and.

Bi mila eta hogeita bateko irailaren hamalauan, arratsaldeko bostetan, aldamenean adierazitakoak bildu dira era telematikoan Zoom aplikazioaren bidez, Batzorde Betearazleko kideak baitira. Bilkuraren buru Juan Carlos Castillo Ezpeleta jn. aritu da, eta idazkari, berriz, Berta Enrique Cornago and. Hona hemen

GAI-ZERRENDA

1. Aurreko bilkuraren aktaren berri ematea eta hura onestea.
2. Batzorde eta Kontseilu sektorialeko buruzko informazioa.
3. Batzorde eta Kontseilu sektorialetako ordezkariak izendatzea.
4. Geserlocal S.L NUKFri atxikitako toki entitateen erakunde instrumental bihurtzea.
5. 0-3 lantalde bat eratzea eta teknikariak izendatzea Nafarroako Gobernuaren teknikaekin batera curriculumari buruzko foru dekretua lantzeko.
6. Batzorde Betearazlearen urriko saioa dataz aldatzea.
7. Lehendakariaren informazioa.
8. Galde-eskeak.

1. PUNTUA- Ekainaren 8ko ohiko bilkuraren aktaren berri ematea eta hura onestea.

Aurreko bilkuraren aktaren kopia igorrita deialdiarekin batera, aldez aurretik irakurri beharrik gabe, lehendakariak galdetu du Batzorde Betearazleko inork oharrrik duen haren inguruan.

Inork ez du oharrrik egin; horrenbestez,

ERABAKI DA:

2021eko ekainaren 8an egin bilkuraren akta onestea.

2. PUNTUA.- Batzorde eta Kontseilu Sektorialei buruzko informazioa.

Honako Batzorde eta Kontseiluen berri eman dute:

- **Erroldatze Kontseiluaren Probintzia Atala (EIN), (2021/06/09).** Udalek ofizioz jakinarazitako bajen berri eman zen.
- **Nafarroako Gizarte Ongizatearen Kontseilua (osoko bilkura), (2021/06/10).** Hiru hautagaitza aurkeztu ziren kontseilu honen ordezkari gisa Nafarroako Aurrezki Kutxaren (CANen) patronatuaren kide izateko. Nafarroako Gizarte Arretaren Etika Batzordea arautzen duen irailaren 20ko 60/2010 Foru Dekretuaren berri eman zuten bai eta Haurtzarolari buruzko Foru Legearen aurreproiektuaren izapidetzearen berri ere. Halaber, desgaitasuna duten pertsonentzako aparkatzeko txartelak arautzen dituen Foru Agindu baten inguruko informazioa eman zuten.
- **Nafarroako Taxien Kontseilua, (2021/06/11)**
- **Nafarroako Osasun Kontseilua, (2021/06/14).** 2020ko memoriaren eta Covidak eragindako gastuen berri eman zuten. Halaber, egoera epidemiologikoaren berri eman zuten bai eta jorratzen ari den Eutanasiari buruzko Legearen berri ere.
- **Lurralde Antolatze Batzordea, (2021/06/18).** Iturengo Lurralde Okupatzeko Estrategia eta Ereduari (LOEEari) aldeko txostena eman zioten bai eta Iruñerriko hondakinak tratatzeko zentroaren Udalez gaindiko Plan Sektorialari (UPSari) eta Erripagainako UPSari ere.
- **NILSAko Administrazio Kontseilua, (2021/06/21).** Ibaiak saneatzeko planaren egiletzari eta lehen hiruhilekoaren exekuzioari buruzko informazioa eman zuten. Zenbait obrari aurre egiteko aurrekontuaren aldaketari eta zerbitzuen karta berriari buruzko informazioa ere eman zuten.
- **Emakumeen kontrako Indarkeriari Arreta Ematea eta Aurrea Hartzea Eraginkortasunez Koordinatzeko Erakunde arteko Akordioaren Batzorde Iraunkorra, (2021/06/22).** 2020an egindako lanaren berri eman zuten eta jakinarazi zuten Next Generation funtsekin bi proiektu lantzen ari direla.
- **Hirian Erabiltzeko Uraren Ziklo Integralaren Nafarroako 2019-2030 Plan Zuzentzaileari jarraipena egiteko batzordea, (2021/06/22).**
- **Lurralde Politikarako Gizarte Kontseilua, (2021/06/22).** Nafarroako Lurralde Estrategia berrikusten ari direla jakinarazi zuten. Honakoak hartzen dira helburu gisa: hiri eta landa eremuen artean oreka handiagoa bilatzea, biodibertsitatea babestea, eskualdeetako hiriburuak indartzea,

ikatzik gabeko ekonomia sustatzea, eta hondakinen esparru-zuzentaraua eta ekonomia zirkularra aplikatzea.

- **FEMParen Lurralde Kontseilua, (2021/06/29).** Berreskuratze funts bat negoziatzeko lanetan jarraitzen dute eta defizita duten edo diruzaintzako gerakinik ez duten toki entitateei lehentasuna emateko lanetan. Era berean, lanean ari dira Next Generation Funtsak toki entitateei arinago iritsi ahal izateko.
- **Toki Araubideko Foru Batzordea (2021/07/01).** Kontsumoari buruzko Foru Legearen aurreproiektuari aldeko txostena eman zitzaion baina azpimarratu zenez, lege horrek ez luke arazorik sortu behar udalek, orain arte egin duten moduan, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen elkarrekin elkarlanean aritu ahal izateko. Izan ere, elkarlan horri esker, herritarrek oso ongi baloratzen duten zerbitzua ematen baitute udalek.
- **Kontratazio Publikoaren Batzordea, (2021/07/01).** Jardueren memoria aurkeztu zuten eta Nafarroako Gobernuako erakunde instrumentalak arautzeko foru dekretuaren proiektuaren berri eman zuten.
- **Nafarroako Babes Zibileko Batzordea, (2021/07/01).** Aldeko txostena eman zioten Cortesko uholde-arriskua ekiditeko planari.
- **Hezkuntzaren itunen eta diru-laguntzen Batzordea, (2021/07/01).**
- **Erroldatze Kontseiluaren Probintzia Atala (EIN), (2021/07/19).** Ofiziozko bajak izapidetu ziren.
- **Nafarroako Gardentasun Kontseilua, (2021/09/06).** Informazio publikoa eskuratzeari buruz aurkeztutako erreklamazioen berri emateaz gain, publikotasunaren betebeharrak ez betetzeagatik bi toki entitateen aurka jarritako bi salaketa izapidetu zituzten.
- **Vianako Printzea Erakundea - Kultura Zuzendaritza Nagusia eta Nafarroako udalerrriak koordinatzeko Foroa, (2021/09/07).** Kultura arlorako iritsiko diren Next Generation Funtsei buruzko informazioa eman eta zein jarduera zehaztetan erabiliko diren azaldu zuten.
- **Nafarroako Berdintasunerako Kontseilua, (2021/09/13).** Kontseiluak hurrengo lauhilekoan egingo duen lanaren agenda aurkeztu zuten. Emakumeen eta gizonen arteko Berdintasunaren Plan Estrategikoa egiteko prozesua zertan den jakinarazi zuten. Saioaren bigarren zatian, Hezkuntza Departamentuaren 2021-2023ko Hezkidetzeta Plana landu eta aztertu zuten. Plan hori irailaren 20ko saio telematikoan bozkatuko du Kontseiluak.

Kulturaren Foroari eta Next Generation Funtsei buruz igorritako informazioari dagokionez, Maya jaunak, Iruñeko Alkateak, informazio hori igortzeko eskatu du.

Alvarez jaunak, Castejongo alkateak, Nafarroako Taxien Kontseilua zer maiztasunarekin biltzen den galdetu du eta nork deitzen duen.

Romero jaunak, Aranguren Ibarreko alkateak, kontseilu horren kide den aldetik adierazi du saioak Garraioen Zuzendaritza Nagusiak deitzen dituela eta ez dagoela maiztasun zehatzik.

Alvarez jaunak berriro ere adierazi du Nafarroan Bideozaintzaren inguruko Bermerako Batzordearen bilkurarako deia egin dezaten eskatzeko beharra, duela denbora asko aurkeztu zuten eskaera bat baimentzea premiazkoa zaielako. Atzerapena ikusita, behin behineko baimen bat egiteko aukera proposatu du Batzordeak behin betikoa onetsi bitartean.

ERABAKI DA:

Jakinaren gainean daudela adieraztea.

3. PUNTUA.- Batzorde eta Kontseilu Sektorialetako ordezkariak izendatzea.

Nafarroako Eskolatzeko Batzordeak ordezkari bat izendatzeko eskatu dio NUKFri. Batzorde horretan, Esther Lacasta Pérez-Ilzarbe andrea, Basaburuako Udaleko Alkatea, dago kide gisa izendatua.

Honako ordezkaria izendatzea proposatu dute:

- Eskolatzeko Batzorde Nagusia:
 - Ordezkoa: Berta Enrique Cornago and., NUKFko idazkari nagusia.

ERABAKI DA:

Izendapena adierazitako moduan onestea.

4. PUNTUA.- Geserlocal S.L NUKFri atxikitako toki entitateen erakunde instrumental bihurtzea

Aurreko Batzorde Betearazletan jakinarazi zenez, Kontratazio Publikoaren Aholkularitza Batzordeak Geserlocal NUKFren kide diren toki entitateen erakunde instrumentala izatearen alde egindako txostenaren ostean, lanean jardun dute aldaketa horren ondorioak ikusteko eta bai Batzorde Betearazleak bai Geserlocal erakundearen gobernu-organismoek hartu beharreko erabakiak zeintzuk diren zehazteko.

Hala, deialdiarekin batera igorritako agirietan jasotzen den moduan, Geserlocal erakunde instrumental bihurtzeko, Batzorde Betearazleak hori onesteaz gain, NUKFren kide diren toki entitate bakoitzak erakunde instrumental izendatu behar du eta ondoren dagozkion enkarguak egin.

Azaldu dutenez, zuzenean zerbitzuak enkarguan emateko, aplikatu beharreko tarifak ere NUKFren Batzorde Betearazleak onetsi behar ditu. Horrekin loturik, egun Geserlocalek ematen dituen zerbitzu bakoitzari dagozkion tarifen inguruko dokumentazioa igorri da. Aldaketa handiena da enkarguak ez daudela %21eko BEZari loturik eta zehapenak biltzeko zerbitzuaren prezioa bildutakoaren %50 izan beharrean %35 dela. Zehaztu dutenez, BEZaren salbuespenaren afera Ogasunak berretsi du NUKFk kontsulta egin ondoren.

Bestalde, jakinarazi dute Geserlocaleko organismoek erakundearen estatutuen aldaketa onetsiko dutela. Hori ere, deialdiarekin batera igorritako dokumentazioan dago.

Ondoren, hitza eman zaie bertaratutakoei.

Romero jaunak, Aranguren Ibarreko alkateak, egungo betearazpen bideko diru-bilketaren egoerari buruz galdetu dio Geserlocaleko kudeatzaileari.

Maya jaunak, Iruñeko Alkateak, azaldu du arlo ekonomikoan hainbat gauza proposatu direla eta kontuan hartu diren galdetu du. Azaldu diotenez, proposamenak kontuan hartu dira. Nagusiki, Geserlocali egindako enkarguen baldintzetan aldaketak egiteko aukeraren inguruko proposamenak zirela adierazi dute. Zehaztu dutenez, bai deklarazio ereduak bai enkargu ereduak bere horretan onetsiko dira. Hortaz, entitate bakoitzak tokian tokiko erabakiak onetsi beharko ditu bere antolakuntzaren eta planifikazioaren arabera doiketak eginez.

Adierazitakoa oinarritzat harturik, igorritako agirietan dauden erabakiak onestea proposatu dute.

Gaia Batzorde Betearazlearen onespenera jarrita,

ERABAKI DA:

LEHENBIZIKOA. - GESERLOCAL S.L. sozietatea NUKFri atxikitako toki entitateen (hala erabakitzen badute) erakunde instrumental bihurtzea egun ematen dituen zerbitzuak edo haren helburu sozialean daudenak emateko enkargua egiteko.

BIGARRENA. - Erakunde instrumental bihurtzeko behar diren jarduketak egitea eta sustatzea, besteak beste, GESERLOCAL S.L.-ren organoek Sozietate horren estatutuak aldatzea.

HIRUGARRENA. - GESERLOCAL S.L.-k erakunde instrumental deklaratzeko duten toki entitateentzat ematen dituen zerbitzuak zein baldintza ekonomikotan emango dituen onestea, honako baldintza hauetan:

ZERBITZUEN BALDINTZA EKONOMIKOAK

1. PREMIAMENDU BIDEZKO TRIBUTU KUDEAKETARAKO LAGUNTZA ZERBITZUA

Emandako zerbitzua ordaindu egingo da kobratzeko kudeaketa agindua jaso duten zehapen-espeditenteak kobratzean izandako arrakastaren arabera.

Zerbitzuaren ordainsaria, gehienez ere, premiamendu-errekargu murriztuaren (zorraren printzipalaren %10) edo premiamendu-errekargu arruntaren (zorraren printzipalaren %20) kontzeptuan kobratutako zenbatekoaren baliokidea izango da.

GESERLOCAL-ek kostuen kontzeptuan bildutako zenbateko osoa jasoko du.

GESERLOCAL-ek bere gain hartuko du gauzatutako kudeaketaren ondorioz egintzak jakinarazteak dakarren kostu osoa.

2. TRAFIKOARI, IBILGAILUEN ZIRKULAZIOARI ETA BIDE-SEGURTASUNARI BURUZKO ARAUDIA HAUSTEAGATIKO ZEHAZPEN-PROZEDURAK KUDEATZEKO LAGUNTZA ZERBITZUA

Emandako zerbitzua ordaindu egingo da kobratzeko kudeaketa agindua jaso duten zehapen-espeditenteak kobratzean izandako arrakastaren arabera.

Enkargu honen xede den trafikoari, ibilgailuen zirkulazioari eta bide-segurtasunari buruzko araudia hausteagatiko zehapen-prozedurak kudeatzeko laguntza zerbitzuaren prezioa isunekin guztira bildutako diru kopurua gehi %35 izango da.

Erakunde instrumentalak bere gain hartuko du gauzatutako kudeaketaren ondorioz egintzak jakinarazteak dakarren kostu osoa.

3. ZEHAPEN-ESPEDIENTEAK KUDEATZEKO LAGUNTZA ZERBITZUA

Emandako zerbitzua ordaindu egingo da kobratzeko kudeaketa agindua jaso duten zehapen-espeditenteak kobratzean izandako arrakastaren arabera.

Enkargu honen xede den bestelako araudia hausteagatiko gainontzeko zehapen-prozedurak kudeatzeko laguntza zerbitzua emateari dagokionez, prezioa isunekin guztira bildutako diru kopurua gehi %50 izango da.

Erakunde instrumentalak bere gain hartuko du gauzatutako kudeaketaren ondorioz egintzak jakinarazteak dakarren kostu osoa.

4. KONTABILITATE- ETA EKONOMIA-LAGUNTZAKO ZERBITZUA

Ordainsaria kalkulatzeko, erakunde instrumentaleko langileen benetako dedikazio-orduak hartuko dira kontuan; 32,07 euro orduko.

Zenbateko hori urteko KPIaren arabera igoko da eta ekitaldi bakoitzaren hasieran berrikusiko da.

Laguntza zerbitzua emateko beharrezkoa bada entitatearen egoitzetara joatea, kilometroen arabera fakturatuko da, eta prezio hori hitzarmenean ezarritakoa izango da. Une honetan 0,32 eurokoa izango da kilometro bakoitzeko.

LAUGARRENA. - Erakunde instrumentalaren deklarazio-eredua eta, NUKFri atxikitako toki entitateek, hala badagokio, onetsi behar dituzten enkargu-aginduen ereduak onestea. Aipatu ereduak akta honi erantsi dira I. eta II. ERANSKIN gisa.

5. PUNTUA.- 0-3 lantalde bat eratzea eta teknikariak izendatzea Nafarroako Gobernuoko teknikariek batera curriculumari buruzko foru dekretua lantzeko.

Lehendakariak azaldu duenez, Hezkuntzaren Legea aldatzen duen 3/2020 Lege Organikoa indarrean jarri denez gero, beharrezkoa izango da haur eskolen curriculumara arau berrira egokitzea. Horregatik, Nafarroako Gobernuak lantalde tekniko bat eratu nahi du toki entitateetako haur eskoletako profesionalen parte hartzearekin. Hala, Federazioari eskatu dio hainbat herritako eta kudeaketa tipologiatako (zuzena eta kanpoko) bi profesional izendatzeko.

Era berean, aipatu legeak 0-3 zikloari eragiten dion aldaketa sorta bat aurreikusten du; besteak beste, haur-hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeen doakotasuna ekarriko duen mailakako prozesu bat ezartzea eta ikastetxeen baldintza fisikoak arautzen dituen araudi berri bat eta abar. Nafarroako Gobernuak hori guztia jorratzeko beste lantalde bat osatzeko asmoa ere helarazi dio Federazioari. Hala ere, aldaketa horiek landu ahal izateko, komenigarria da berehala barneko lantalde bat sortzea, joan den legealdian egin moduan. Lantalde horrek 0-3 zerbitzuaren funtzionamendua aztertzen eta eztabaidatzen has daiteke. Barneko lantalde hori osatzeko 0-3 urtekoen zentroen titularrak diren toki entitateetako ordezkariak gonbidatzea proposatu da. Hala ere, parte-hartzea Batzorde Betearazleko kideei ere irekitzea proposatu da.

Ondoren, hitza eman zaie bertaratutakoei.

Maya jaunak, Iruñeko alkateak, adierazi du lantalde teknikoan Iruñeko Organismo Autonomoaren kudeatzaileak parte hartzea nahiko lukeela.

Toquero jaunak, Tuterako alkateak, Tuterako haur eskolen teknikari baten izendapena proposatu du haren datuak igorriko dituela esanez.

Alvarez jaunak, Castejongo alkateak, zehaztu duenez, erabakiaren lehenengo zatiari dagokionean abstenitu egingo da berak 0tik 3ra bitarteko zikloa hezkuntza publiko arautuaren barruan txertatzearen aldekoa delako eta, beraz, eremu publikoko profesionaletara mugatu beharko litzatekeela uste du. Bigarren zatiari ordea, aldeko botoa ematen diola adierazi du.

NUKFren barneko lantaldea osatzeko, honakoek adierazi dute parte-hartzeko nahia: Alvarez jaunak, Castejongo alkateak; Maya jaunak, Iruñeko alkateak; Toquero jaunak, Tuterako alkateak; Mikel Zabaleta jaunak, Leitzako alkateak; Raul Maiza jaunak Berriozarko alkateak (azkeneko biek adierazi dute hezkuntza arloko zinegotziek parte hartuko dutela); Esther Lacasta andreak, Basaburuako alkateak eta Jesús Arrizubieta jaunak, Tafallako alkateak.

Gaia Batzorde Betearazlearen onespenera jarrita,

ERABAKI DA:

LEHENBIZIKOA. Iruñeko eta Tuterako udalek proposatutako profesionalak izendatzea 0-3 hezkuntza-zikloko curriculuma egokitze lantalde teknikoan parte hartzeko.

BIGARRENA. NUKFren baitan lantalde bat sortzea. Bertan, haur eskolen titular diren toki entitateetako ordezkariak parte hartuko dute, zerbitzu horren funtzionamendua aztertze eta eztabaidatzeko, eta, zehazki, zentroen kudeaketa-, finantzaketa-, baldintza fisiko- eta doakotasun-gaietarako alternatibak formulatzeko. 0 eta 3 urte bitarteko zentroen titular diren toki entitateen ordezkariak gonbidatuko dira talde horretan parte hartzera. Taldeak gehienez ere 15 kide izango ditu, eraginkortasuna bermatze aldera. Hala ere, hemendik aurrera lantaldean sartuta gelditzen dira hala eskatu duten Batzorde Betearazleko kideak.

6. PUNTUA.- Batzorde Betearazlearen urriko saioa dataz aldatzea.

Lehendakariak urriko Batzorde Betearazleko data aldatzea proposatu du aurreikusitako eguna Pilar jaieguna delako. Saioa urriaren 19an egitea proposatu du.

Segura andreak, Alesbesko alkateak, egungo osasun egoera ikusita eta osasun neurriak malgutu direnez gero, bilkura aurrez aurre egiteko proposatu du.

Lehendakariak adierazi du aurrez aurre egitea komeniko litzatekeela baina bilkuren aretoaren tamaina kontuan hartuta, edukiera arazoak egon daitezkeela. Edozein modutan ere, proposamena kontuan hartuko dutela esan du eta bilkura-aretoan ezin bada egin beste areto bat bilatzeko aukera ere badagoela.

ERABAKI DA:

Batzorde Betearazlearen urriko bilkura urriaren 19ra aldatzea.

7. PUNTUA.- Presidentearen informazioa.

Lehendakariak honako gai hauek aipatu ditu:

- Ekainaren 15ean izandako 5G-ari buruzko mintzaldia eta Acción Contra el Hambre erakundearekin egindako bilera.
- Ekainaren 18an Anfas erakundearekin izandako bilkura.
- Ekainaren 22an Espainiako Gobernuko Ordezkariekin izandako bilkura estatuko administrazioaren zerbitzu elektronikoen karta aurkezteko.
- Ekainaren 28an izandako bilkura Kanpoko Ekintza Plana (PAEX) jorrazteko.
- Uztailaren 1ean Tuterako polizia buruarekin izandako bilera. Bertan, polizia kidegoen artean dauden soldata ezberdintasunek eragiten dituzten arazoak helarazi zizkieten Federazioari.
- Uztailaren 1ean Covid koordinazio taldearekin izandako bilkura, udari begira egoeraren jarraipena egiteko.
- Uztailaren 5ean izandako Trantsizioa Kudeatzeko Batzordearen saioa. Bertan, egoera epidemiologikoaren berri eman zuten eta neurriak malgutzeko aukeraz aritu ziren.
- Human Rights Resistance erakundearekin izandako bilkura. Bertan, hondakinen prebentziorako ebazpen bat lantzen ari direla, eta udaletara eraman nahi dutela azaldu zioten Federazioari.
- Uztailaren 15ean Elikagaien Bankura egindako bisita Federazioaren elkarlana berresteko.
- Osasun Kontseilariarekin eta Osasun Publikoaren Institutuarekin izandako bilkura neurri berrien inguruan toki entitateekin informazioa koordinatzeko.
- Uztailaren 23an Animsarekin eta Zentro Kriptologikoaren arduradunekin izandako bilkura Segurtasun Eskema Nazionala ezartzeko elkarlanean aritzeko.
- Uztailaren 30ean Red Explorarekin izandako bilkura Nafarroan bizikletentzako ibilbideak egiteko.
- Osasuneko Zuzendaritza Nagusiarekin izandako bilkura eskola-sustatzaileak kontratatzeke deialdiaren inguruan, gizarte zerbitzuetako zenbait mankomunitatek deialdiak jasotzen dituen finantzazio aldaketekin lotuta egindako kexak direla eta.
- Abuztuaren 6an Turismoko Zuzendaritza Nagusiarekin Next Generation funtsen inguruan izandako bilkura. Bertan, Federazioari Donejakue Bidearen proiektu turistiko baten buru izateko proposatu zioten.
- Nafarroako Rural Kutxarekin izandako bilkura banku-kontuen kudeaketa eta abar berrikusteko.
- Irailaren 6an Nafarroako Gobernuarekin eta polizia kidego ezberdinekin izandako bilkura. Bertan,

osasan neurriak malgutzeko aukera baloratu zen epidemiaren datuak onak zirela ikusita.

- Irailaren 7an Justiziako Departamentuaren buruarekin izandako bilkura, bikote egonkorak legezko egiteko hitzarmena sinatzeko. Bikote horiek legezko egiteko behar diren dokumentu-eredu guztiak prest eta udalen eskura daudenean hitzarmena sinatzea komeni dela adierazi zen.
- Irailaren 10ean Lurralde Kohesioko kontseilariarekin eta Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren zuzendari nagusiarekin izandako bilkura. Bertan, Inbertsio Planarekin lotuta egiten ari diren lanen berri eman zioten Federazioari: helburuak, azpiegituren beharrari buruz toki entitateei egindako inkesta eta abar.
- Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoa aldatzeko proposamena, Nafarroako Parlamentuak onetsia, Kongresuan izapidetuko da, hauteskunde-gastu handiegia dela-eta hautesle-taldeei irekitako zehapen-espedituentz aurrean NUKFk hainbat jarduketa egin ondoren.

Maya jaunak, Iruñeko alkateak, Turismo Departamentuarekin Next Generation funtsei buruz izandako bilkurarekin lotutako informazioa igortzeko eskatu du.

Fabo jaunak, Martzillako alkateak, Toki Inbertsioen Planari buruzko bilkuran planaren zirriborrorik dagoen esan ote zuten galdetu du eta entzierroak baimenduko diren jakin nahi du.

Erantzun diotenez, oraindik zirriborrorik ez dutela adierazi zioten Federazioari. Entzierroei dagokienez, lehendakariak Gobernuarekin eta abeltzainekin bilkura egin zuela esan du eta bertan entzierroak baimenduko zirela adierazi zietela. Hala ere, baimentzea urriaren 1a arte atzeratzea proposatu zuten.

ERABAKI DA:

Jakinaren gainean daudela adieraztea.

8. PUNTUA.- Galde-eskeak

Bea jaunak, Cintruenigoko alkateak, eskatu du Lurralde Kohesioko Departamentuari zerrenda bat egiteko eskatzeko kontu-hartzaitzako lanpostu hutsak betetzeko, lanpostu huts baterako bi hautaketa-prozesu deitu behar izan baitira.

Halaber, onesten diren osasan neurriak NUKFri kontsultatzen zaizkion galdetu du, berak prentsaren bidez izaten baitu horien berri.

Baietz erantzun diote baina prentsari aurrea hartzea oso zaila dela.

Unzue jaunak, Agoizko alkateak, JEZen salbuespenaren konpentsazioaren gaia nola dagoen galdetu du; izan ere, bigarren ordainketan egingo zela esan zen eta ez da hala izan, eta milioi bat eurotik gora fakturatzen duten enpresei buruzko informazioa noiz igorriko den ere galdetu du.

Halaber, Energia garraiatzeko enpresei tasa kudeatzeari buruz galdetu du.

Azkenik, Kontuen Ganberak eta Iberdrolak antolatutako jardunaldian NUKFk izandako parte-hartzea zalantzan jarri du. Lehendakariak esan du jardunaldian aurkeztutako tresna bikaina dela CO₂-aren isurketak murrizteko eta jardunaldia Ganberarekin sinatutako hitzarmenaren baitan dagoela.

Eta aztergai gehiagorik ez dagoela, presidente jaunak bilkura amaitutzat eman du, goiburuan aipatzen den eguneko 18:50ak direnean. Idazkari naizen honek honako akta idatzi eta horren fede ematen dut, eta presidentearekin sinatu dut.

LEHENDAKARIAREN ONIRITZIA,

IDAZKARIA,

Juan Carlos Castillo Ezpeleta jn.

Berta Enrique Cornago and.